



Beasaino Udala

Beasainen, bi mila eta hemeretzi urtarilaren hogeita lauan

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINO UDALA, Aitor Aldasoro Iturbe Alkate-Lehendakari jaunak ordezkaturik, Beasaino Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, BETI BIZI ELKARTEA (N.I.F.: G20190153), Raúl Bonilla Sanchez jaunak (NA 34108804B) Beti Bizi elkartearen lehendakariak ordezkaturik, 2018ko urriaren 3ko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera.

AURREKINAK

I. Beti Bizi Elkarteak urtero Beasain Jaietan urtekaria antolatzen du, eta egiten jarraitzeko interesa badu.

II. Kultur sustapenean aktiboki laguntzen du Beti-Bizi Elkarteak, 2019. urtean zehar zenbait jarduerak proposatuz.

III. Hitzarmen honen helburua Beti-Bizi Elkartearen eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, Kultur jarduerak egiteko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Beti Bizi Elkarteak Beasain Jaietan urtekariaren argitarapena antolatu eta finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

BIGARRENA.- Beasaino Udalak Kultur jarduerak hori dela eta **6.685,80 €** emango dizkio. Ordainketa zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan eguneratuta dagoela kreditatu ondoren, apirilean egingo da ordainketa, eta Beti Bizi Elkarteak 15 aldizkari paperean eta aldizkariaren pdfa emango dizkio Udalari.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, BETI BIZI ELKARTEAK egiaztatu beharko du ordaindu beharreko zergak, gizarte-segurantzakoak barne, egunean dituela.

HIRUGARRENA.- Beti Bizi Elkarteak bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein ekitalditan lagunduko du.



BETI - BIZI, K.A.E.
KULTUR BATZORDEA
Oria Pasalekua, 2
20200 BEASAIN



LAUGARRENA.- Beti Bizi Elkarteari dagokio hitzarmendutako jarduerari beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jarduerari buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-gitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

BOSGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

SEIGARRENA.- Beti Bizi Elkartea, publizitate bidez finantzatzeko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal Zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko, eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Beasaingo Udalak Beti Bizi Elkartek aurkeztutako kontuan hitzarmendutako zenbatekoa sartuko du jarduera burutu baino lehen, eta Beti Bizi Elkartek urtea amaitu baino lehen udalaren esku utzi beharko du ondorengo dokumentazioa:

- a) Jardueren azalpen memoria, bertan ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua emanez.
- b) Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztagarri.
- c) Idatziz sortutako materialaren ale bana aurkeztu beharko ditu.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Beti-Bizi Elkartek, Alkatetzak honetarako jartzen duen edo dituen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkartek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.



Beasaingo Udala

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarrekin Beasaingo Udalarik datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

HAMALAUGARRENA.- BETI BIZI ELKARTEAK (N.I.F.: G20190153), baimena ematen dio espresuki BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eta Gizarte Segurantzak eskura dezan, hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen duen agiriak:

☒ BAI

☐ EZ

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urtebeterako sinatzen dute bikoizturik goiburuan aipatutako data eta lekuan.



